

HARREMANA

Gure ustez, bezeroarekin harremana mantentzea oso garrantzitsua da. Bezeroak enpresarengan konfiantza izatea oso garrantzitsua iruditzen baitzaigu, oraindik ere garrantzitsuagoa saltzen den produktua berria denean. Jendeak berria denari, aldaketari beldurra baitio askotan.

Beraz, bezeroekin harremana mantentzeko zerbitzu automatizatu bat jarriko dugu. Zerbitzu automatizatuak, bezeroak errekonozitu eta bezeroen profilari egokitutako informazioa eta iradokizunak ematen dituzten zerbitzuak dira. Guk, adibidez, web orrialde bat sortuko dugu. Horrela, bezeroak beraien eskabideak egin ahal izango dituzte denda fisiko batera joan behar izan gabe. Bertan, bezeroek harpidetzeko aukera izango dute eta harpidetu ondoren, beraien eskaerak egin ahal izango dituzte.

Harreman hori mantentzeko, beraiak harpidetzean jarri duten helbidera, gure berrikuntzen, eskaintzen eta abarren berri emango diegu eta web gunean atal bat izango dugu bezeroek berrikuntzen inguruan beraien iritzia eman ahal izateko.

Horrez gain, bezeroentzako zerbitzu pertsonalizatua ere eskeiniko dugu. Zerbitzu pertsonalizatua, bezeroak enpresako ordezkari erreal batekin komunika daitezkeen motako zerbitzua da, zeinak erosketak egiteko unean bertan edo ondoren lagundu egingo dien. Gure ustez, zerbitzu mota hori beharrezkoa da enpresa bat irekitzerako orduan. Horregatik, web orrialdean telefono zenbakia, helbidea zein helbide elektronikoa jarriko ditugu bezeroarentzat eskuragarri.

